Astigarragako Udala
Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

# OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2012IPLE0002
**Eguna:** 2012-02-23
**Ordua:** 19:07-20:10
**Tokia:** Areto nagusia

## Bertaratuak

| | |
|---|---|
| - Andoni Gartzia Arruabarrena | BILDU |
| - Maite Olatziregi Esparza | BILDU |
| - Agin Rezola Laburu | BILDU |
| - Ione Olatziregi Mendiorotz | BILDU |
| - Berta Arozena Bergara | BILDU |
| - Isabel Otero Glorie | BILDU |
| - Raul Redín Hernández | BILDU |

## Bertaratu ez direnak

| | |
|---|---|
| - Imanol Lizarralde Marín | Hamaikabat |

## Idazkaria

- Xabin Olaizola Lasa

## Aztergaiak

| EGUNEKO AZTERGAIAK | Zk / Nº | ORDEN DEL DIA |
|---|---|---|
| **2012ko urtarrilaren 26ko aktaren onarpena** | **1** | Aprobación del acta de 26 de enero de 2012 |
| **Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa zehatza, HJU 5.1 – Etxeberria. Hasierako onarpena** | **2** | Modificación puntual del P.G.O.U. referida a la UEU 5.1 –Etxeberria. Aprobación inicial |
| **Mozioak** | **3** | Mociones |
| **Zaintza eta babespe banatua** | **3.1.** | Moción sobre guarda y custodia compartida |
| **Murrizketen aurkako mozioa (Bildu)** | **3.2.** | Moción en contra de los recortes (Bildu) |
| **Informazioa eta galderak** | **4** | Información y preguntas |

## Esan-eginak eta erabakiak

Alkateak jakinarazi dio osoko bilkurari babespe banatuari buruz 3.1 puntuan bilduriko mozioari dagokionez, Bilduk aurkeztutako mozio alternatibo bat aurkeztu dutela erregistroan, eta beste bat martxoaren 8a Emakumearen Nazioarteko Egunari buruzkoa, eta gai-zerrendan sartu nahi dutela aldez aurreko presakako deklarazio bidez.
Bozketa egin eta gero, aho batez onartu da.

El alcalde comunica al pleno que en relación a la moción contenida en el punto 3.1 relativa a la custodia compartida, han presentado en registro municipal una moción alternativa presentada por Bildu, y otra relativa al 8 de marzo Dia Internacional de la Mujer y que quieren incorporar al orden del día previa declaración de urgencia.
Sometida a votación es aprobada por unanimidad.

**1. <u>2012ko urtarrilaren 26ko aktaren onarpena</u>**

**1. <u>Aprobación del acta de 26 de enero de 2012</u>**

Akta, aho batez, onartzen da.

El acta es aprobada por unanimidad.

**2. <u>Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa zehatza, HJU 5.1 – Etxeberria. Hasierako onarpena</u>**

**2. <u>Modificación puntual del P.G.O.U. referida a la UEU 5.1 –Etxeberria. Aprobación inicial</u>**

Alkateak otsailaren 2ko hirigintza-batzordearen irizpena aurkeztu du eta honako erabaki hauek hartzea proposatu du:

El alcalde presenta el dictamen de la comisión de urbanismo de fecha 2 de febrero proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

Lehena.- Astigarragako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aldaketa zehatza, HJU 5.1 –Etxeberria-, eremuari dagokiona, hasierako izaeraz onartzea, 2010eko urriaren 15eko 753/2008 epaia betetzeko.

Primero.- Aprobar inicialmente el Expediente de modificación puntual del P.G.O.U., referida a la U.E.U. 5.1 –Etxeberria-, para dar cumplimiento a la Sentencia nº 753/08 dictada el 15 de octubre de 2010 por el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.

Bigarrena.- Hilabete bateko epean jendaurrean ezartzea, GAOn eta prentsan hartutako erabakia argitaratuz.

Segundo.- Someter a información pública durante el plazo de un mes, publicándose el acuerdo en el BOG y en el diario o diarios de mayor circulación de Gipuzkoa.

Idazkariak adierazi du 7/85 Legeak 47.2 artikuluan xedatzen duen arabera aurreko puntu hori onartu ahal izateko erabakiak gehiengo osoa bermatu beharko duela, hau da, gutxienez 6 boto proposamenaren alde.

A continuación interviene el secretario informando que la adopción del acuerdo que se propone conforme a lo dispuesto en el art.47.2 de la Ley 7/85, requiere acuerdo de mayoría absoluta, es decir, el acuerdo requiere como mínimo 6 votos a favor.

Ondoren, alkateak bozka dezaten aurkeztu du irizpena, eta aho batez onartu dute, aretoan bilduta zeuden 7 zinegotzien aldeko botoa lortu baitu.

Seguidamente el alcalde somete a votación el dictamen que es aprobado por unanimidad, al obtener 7 votos a favor de todos los concejales presentes en la sala.

## 3. Mozioak

### 3.1. Zaintza eta babespe banatua

Osoko bilkuran bertaratu dira :

- Zorione Etxezarraga Ortuondo EAJ-PNV
- Ramón Aranzasti Loyarte EAJ-PNV
- Bixente Arrizabalaga Bengoetxea Hamaikabat

## 3. Mociones

### 3.1. Moción sobre guarda y custodia compartida

Se incorporan al Pleno los concejales

- Zorione Etxezarraga Ortuondo EAJ-PNV
- Ramón Aranzasti Loyarte EAJ-PNV
- Bixente Arrizabalaga Bengoetxea Hamaikabat

Alkateak adierazi du mahai gainean geratuko dela 3.1 puntuan bildutako mozioa, eta ez dela horrela bozkatuko, Bilduk aurkeztutako mozioak ordeztu baitu mozio hori.

El alcalde manifiesta que la moción contenida en el punto 3.1 quedará sobre la mesa, y como tal no se someterá a votación dado que esa moción ha sido sustituida por la presentada por Bildu.

Babespe banatuari buruz Bilduk aurkeztutako mozioa irakurri du Maite Olatziregi zinegotziak, eta honako erabaki hauek hartzea proposatu du:

.- Emakume eta gizonen aukera berdintasunaren aldeko apustuan bere konpromisoa berrestea eta

La concejal Maite Olatziregi da lectura a la moción presentada por Bildu, en relación a la custodia compartida proponiendo la adopción de los siguientes acuerdos:

.- Reafirmarnos en nuestra apuesta a favor de la igualdad de oportunidades entre hombres y mujeres y adoptar las medidas

berdintasunerako bidean beharrezkoak diren neurriak hartzea.Hola nola, aukera berdintasun-plana diseinatzea eta inplementatzea.

.- Zaintza-lanak berdintasunean banatzearen aldeko apustuan indarrak jartzea.

.- Banaketa-prozesuetan aurkitzen diren emakume eta gizonei dei egitea akordioaren bidea aukeratu dezatela; hau baita guztion eskubideak bermatuak izan daitezen bide bakarra.

necesarias para alcanzar es igualdad.Entre ellas el diseño e implementación de un plan de igualdad.

.- Invertir nuestro esfuerzo en el reparto igualitario de las tareas de cuidado de las y los hijos.

.- Hacer un llamamiento a las mujeres y hombres que se encuentren en proceso de separación para que opten por el camino del acuerdo;ya que es esta la única vía para que se respeten los derechos de todas y todos.

Mozioa bozkatu ondoren, aho batez onartu da.

Sometida a votación la moción es aprobada por unanimidad.

## 3.2. <u>Murrizketen aurkako mozioa (Bildu)</u>

## 3.2. <u>Moción en contra de los recortes (Bildu)</u>

Agin Rezola zinegotziak osoko bilkurari honako erabaki hauek hartzeko proposatzen dion mozioa irakurri du:

El concejal Agin Rezola da lectura a la moción en la que se propone al pleno la adopción de los siguientes acuerdos:

1. Udal honek, Espainiako Gobernuaren presidente den Mariano Rajoyk iragarritako neurriak errefusatzen ditu. Besteak beste, Enplegu Eskaintza Publikoaren suntsiketa eta funtzio publikoan berrezarpenaren debekuaz, udal honek eskaintzen dituen zerbitzuen kalitatea kaltetzen duelako.
2. Udal honek, geroz eta premiazkoagoa den Ongizate Estatuaren defentsan kontsentsua

1. Este ayuntamiento rechaza las medidas anunciadas por Mariano Rajoy, presidente del Gobierno de España. Entre otras razones, porque mediante la destrucción de la Oferta Pública de Empleo y la prohibición del restablecimiento en la función pública perjudica la calidad de los servicios ofertados por este ayuntamiento.
2. Este ayuntamiento solicita el mantenimiento del consenso en la defensa cada vez más urgente del Estado de Bienestar, para favorecer

mantentzea eskatzen du; udalek, herritarrengandik gertueneko erakundeak izanik, eman behar dituzten zerbitzuen alde egiteko.

3. Madrilen onartutako neurri hauen larritasunaren eta ondorioen aurrean, Bilduk, euskal gizarteari dei egiten dio, mobilizatu eta kalitatezko eta herritarrengandik gertueneko sistema publikoaren aldeko konpromisoa adierazi dezan.

los servicios que deben prestar los ayuntamientos, siendo como son las instituciones más cercanas al ciudadano.

3. Ante la gravedad y las consecuencias de estas medidas aprobadas por Madrid, realizamos un llamamiento a la sociedad vasca para que se movilice y exprese su compromiso en favor del sistema público más cercano a la ciudadanía.

Ondoren, Zorione Etxezarraga zinegotziak hartu du hitza, eta adierazi du EAJ/PNVren jarrera aurka bozkatzea izango dela, uste baitu 20/2011 Errege Lege Dekretu horrek udal-autonomia inbaditzen duela eta estatuko legegilea tartean sartu dela, eta salatu du Estatuko Segurtasun eta Indar Kidegoak eta Indar Armatuak dekretu honen aplikaziotik kanpo geratu izana.

A continuación interviene la concejal Zorione Etxezarraga quien manifiesta que la postura de EAJ/PNV va ser de votar en contra dado que entiende que el RDL 20/2011 en cuestión invade la autonomia municipal y como tal es una intromisión del legislador estatal y denuncia que de la aplicación de este decreto queden excluidas los Cuerpos y Fuerzas de Seguridad del Estado y las Fuerzas Armadas.

Bozketa egin ondoren, Bilduk aurkeztutako mozioa onartu da, Bilduren zinegotzien aldeko 7 botoak eta gainerako zinegotzien aurkako 3 botoak lortu baititu.

Sometida a votación la moción presentada por Bildu es aprobada al obtener 7 votos a favor de los concejales de Bildu y 3 votos en contra del resto de concejales.

## 3.3 <u>Bilduren mozioa: Martxoa 8ko Adierazpena.</u>

## 3.3. <u>Moción de Bildu: Declaración del 8 de Marzo</u>

Martxoaren 8a dela-eta egindako deklarazioa irakurri du Ione Olatziregi zinegotziak, eta adierazi du Astigarragako Udalak bultzatuko duen politika feministak honako hau izango duela kontuan:

La concejal Ione Olatziregi da lectura a la declaración con motivo del día 8 de marzo señalando que la politica feminista que impulse el ayuntamiento de Astigarraga tendrá en cuenta lo siguiente:

| | |
|---|---|
| Emakumeok jasaten dugun zapalkuntza egiturazkoa da. Hau da, jendartearen egituraren emaitza da eta antolaketa ekonomikoan, politikoan eta ideologikoan uztartuta dago. Egiturazkoa da patriarkatua erabat errotuta dagoelako gure jendartean eta antolaketa eredu hori sistema kapitalistaren ezinbesteko zutabea delako. | La opresión que padecemos las mujeres es estructural. Es decir, es el resultado de la estructura de la sociedad y está ligada a la organización económica, política e ideológica. Es estructural porque el patriarcado está profundamente enraizado en nuestra sociedad y porque ese modelo de organización es un pilar esencial del sistema capitalista. |
| Udaletan garatu nahi dugun Politika Feministak estrukturala den arazo bati erantzun nahi dionez, ezinbestean politika integrala izan behar du emakumeen bizitzaren arlo guztietan eragin behar duelako. | Dado que la Política Feminista que pretendemos desarrollar en los ayuntamientos quiere dar respuesta a un problema que es estructural, debe necesariamente tratarse de una política integral que debe influir en todas los campos de la vida de la mujer. |
| Politika feministak emakumeon eskubideak oinarrituko da. Beste herri eredu baten eraikuntza dugu helburu. Hau da, gizon eta emakumeen arteko harreman eredu berri bat eraiki nahi dugu. | Las políticas feministas se basarán en los derechos de la mujer. Nuestro objetivo es la construcción de un nuevo modelo de pueblo. Queremos construir un nuevo modelo de relaciones entre hombres y mujeres. |
| Politika feministak emakumeen gidaritza eta parte-hartzea bilatuko du. Politika honen definizioa mugimendu feminista eta emakume taldeekin egin behar da. Hauen parte hartzeak politika feminista erreala definitzea ahalbideratuko du. | La política feminista buscará el liderato y la participación de las mujeres. La definición de esta política debe realizarse junto con el movimiento feminista y los grupos de mujeres. Su participación permitirá definir una política feminista real. |
| Espezifikoki landuz baina zeharkakotasuna ahaztu gabe martxan jartzen ari garen proiektua oinarri feministetan egituratuko dugu eta gure herrian sortzen ditugun politika guztietan ikuspegi feminista kontuan izango dugu. | El proyecto que estamos poniendo en marcha mediante una elaboración específica pero sin olvidar transversalidad lo estructuraremos en bases feministas y tendremos en cuenta la perspectiva feminista en todas aquellas políticas que desarrollemos en nuestra localidad. |
| Bukatzeko Astigarragako Udalak mugimendu feministak antolatuko dituen | Para finalizar, el Ayuntamiento de Astigarraga invita a toda la ciudadanía a |

ekimen guztietarako joateko deia luzatu nahi die herritar guztiei.

acudir a las iniciativas que organice el movimiento feminista.

Asko dugu egiteko eta asko dugu ikasteko. Politika feminista gure herrian marrazten ari garen aldaketa politiko eta sozialaren izarra bihurtu behar dugu.

Nos queda mucho por hacer y mucho por aprender. La política feminista ha de convertirse en la estrella que guíe el cambio político y social que estamos dibujando en nuestro pueblo.

Bozketa egin ondoren, mozioa onartu da, Bilduren aldeko 7 botorekin eta gainerako zinegotzien aurkako 3 botorekin.

Sometida a votación la moción es aprobada al obtener 7 votos a favor de Bildu, y 3 abstenciones del resto de concejales.

## 4. Informazio, galdera-erreguak

4.1 Zorione zinegotziak galderak egin dizkio alkateari honako hauei buruz:
.- Udalak igorritako idazkia, ez zigilurik, ez sinadurarik eta ez irteerarik ez duena.
.- Erakustaldi publikoan dagoen baina egikaritzen ari den hirigintza-hitzarmenari dagokionez,

Egindako galderei erantzun die alkateak, eta azpimarratu du hitzarmenari dagokionez udalari ez diola kosturik eragiten, eta Txalako sustatzaileak egikaritu duela, urbanizazio partikularreko beste lan batzuk egiten ari dena.

4.2 Auzoko batek hartu du hitza eta adierazi du Herrikoi elkartea ez dagoela ados Atez Ateko bilketaren gaiari dagokionez gauzak izaten ari diren bilakaerarekin. Azken osoko bilkuran esan zen kontsulta-prozesu bat egingo zela, eta prentsan agertutakoaren arabera, aldiz, Atez Atekoa ezarriko da Astigarragan.

Alkateak erantzun du adieraziz inoiz ez dela esan erreferendum bat egingo denik, baina prozesu partizipatiboa, aldiz, egingo da, eta asmoa duela martxoko osoko bilkuran egitekoa, greba orokorrerako

## 4. Información, ruegos y preguntas

4.1 La concejal Zorione formula preguntas al alcalde en relación a:
.- Escrito remitido por el ayuntamiento, sin sello ni firma, ni salida.
.- En relación al convenio urbanístico que está en exposición pública pero que se está ejecutando,

El alcalde contesta las preguntas formuladas incidiendo que en relación al convenio no supone ningún costo para el ayuntamiento y lo ha ejecutado el promotor de Txalaka que está realizando otros trabajos de urbanización particular.

4.2 Interviente un vecino que señala que como asociación Herrikoi no están contentos de cómo se están haciendo las cosas con el tema de la recogida del Puerta a Puerta. En el último pleno se dijo que se haría un proceso consultivo y en cambio en prensa ha salido que se va hacer el PaP en Astigarraga.

Contesta el alcalde indicando nunca se ha dicho que se vaya a realizar un referendum, pero el proceso participativo se va a realizar y tengo intención que en el pleno de marzo que se adelantará un

deialdia dela-eta aurreratu eta martxoaren 28an egingo den osoko bilkuran, 2012ko Udal Aurrekontuaren onarpena eta Atez Ateko bilketa aztertuko dituen bilkuran, eta adierazi du, halaber, informazio zabala emango dela eta partaidetza garatuko dela.

día por la convocatoria de huelga general, y que se celebrará el 28 de marzo se llevarán al pleno la aprobación del Presupuesto Municipal 2012, y la recogida PaP, y reseña el alcalde que se dará amplia información y se desarrollará la participación.

Bizilagun batek grabagailu bat ematen dio Alkateari, eta martxan jartzen da, eta bertan entzuten da Alkateak atez ateko bilketari buruz esan zuena Udal hauteskundeen aurretik, eta honako hau esanez amaitzen da: herriak erabakiko du.

Un vecino le entrega al Alcalde una grabadora y se pone en marcha en la que se escucha lo que dijo el Alcade en relación al PaP antes de las elecciones municipales y que finaliza diciendo: herriak erabakiko du.

Herritar batek Alkateari honako hau galdetzen dio: atez ateko bilketa egokia den edo ez Astigarragako alde batera utziaz, jartzeko erabakia hartuta dago, beraz gauza politiko bat da eta ez Udal gai bat. Alkateak erantzuten dio erabaki politikoa dela. Errausketaren eraikuntza nola edo hala gelditu egin behar da, eta denbora asko ez dugu'.

Interviene un vecino que pregunta al Alcalde: o sea que al margen de si el PaP es un sistema adecuado para Astigarraga o no, la decisión de implantarla está tomada, no es una cuestión municipal sino política. A lo que el Alcalde contesta: 'sí es una decisión política. Hay que parar la construcción de la incineradora como sea, no nos queda tiempo'.

Beste auzoko batek hartu du hitza eta adierazi du partaidetza-prozesuak ez duela inolako baliorik izango erabakia hartua badago.
Beste auzoko batek hitza hartu du eskatzeko erabakia ekainera arte atzera dadila, bitartean gaia zabal eztabaidatzeko.

Interviene otra vecina indicando que el proceso de participación no valdrá nada si la decisión ya la teneís tomada.
Otro vecino interviene solicitando que se posponga la decisión hasta junio y mientras se pueda debatir el tema ampliamente.

Beste auzoko batek hartu du hitza eta adierazi du aldez aurreko erabakiak arinki hartu zituztela Foru Aldundian EAJ-PNV eta PSE-EE alderdiek, legegintzaldia amaitu baino lehen azken orduan errausketa-plantaren aldeko erabaki eta neurri multzo osoa sinatuta. Adierazi du Bilduren jarrera Atez Atekoaren aldekoa dela gehien birziklatzen duen sistema delako, eta adierazi du era guztietako datu eta informazioak emango dituela jende guztiak ahalik eta informazio gehien

Interviene otro vecino quien señala que las decisiones previas ya las tomaron precipitadamente en Diputación los partidos PNV, PSE-EE firmando a última hora antes de finalizar la legislatura todo un conjunto de acuerdos y medidas a favor de la incineradora. Indica que la postura de Bildu es a favor del PaP porque es el sistema que más recicla, e indica que facilitarán todo tipo de datos e información para que todos tengan la máxima información.

izan dezan.

Bixente Arrizabalaga zinegotziak hartu du hitza eta gogorarazi du azken hauteskundeak baino lehen Herrikoik hainbat mahai-inguru antolatu zituela herrian, eta egungo alkateari Atez Atekoa ezarriko ote zuen galdetu ziotenean erantzun zuen prozesu partizipatibo bat zabalduko zela eta ondoren herriak erabakiko zuela, eta orain esaten digute martxoko osoko bilkuran hartuko dela erabakia, eta hori horrela, uste du Bilduk erabakia hartua duela jada, eta auzokoen erabakia ez zaiela ezer axola.

Obra- eta zerbitzu-batzordeko presidenteak hartu du hitza, eta galdetu du errausketa-planta martxan jartzeko erreferendumik egin ote zuten.

Hainbat mintzaldi izan dira eta 20.10ean amaitutzat eman du osoko bilkura alkateak, eta horrela amaitu da.

Toma la palabra el concejal Bixente Arrizabalaga quien recuerda que previa a las últimas elecciones Herrikoi organizó en el pueblo debates y al actual alcalde le formularon la pregunta si iba a implantar el PaP y contestó que abriría un proceso participativo y luego el pueblo decidirá, y ahora nos ha anunciado que la decisión se tomará en e pleno de marzo, por lo que entiende que Bildu tiene la decisión tomadas sin importarles la decisión de los vecinos.

Interviene el presidente de la comisión de obras y servicios quien pregunta si hicieron un referendum para poner en marcha la incineradora.

Se suceden toda una serie de intervenciones y el alcalde a las 20:10 da por finalizado el pleno procediendo a levantar la sesión.

Bilera amaitutzat eman dugu eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2012ko otsailaren 23an

**Xabin Olaizola Lasa**
**Idazkaria**